

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Antonina Alberdi Arrillaga

*Donostia,
Gipuzkoa
(1925-2017)*

Aurkibidea



Biografia



Igeldoko Lizarreta etxean jaioa, Sakristauena bezala ezagunagoa. Gurasoak igeldotarrak zituen: ama Bengoetxea baserrikoa zen, eta aita sakristau eta maisua. Bost senide ziren, horietako lau neskak. Igeldon bertan ibili zen eskolan, eta gero Donostian hasi zen lanean, plantxatzen; izebak erakutsi zion. Oinez joaten zen, ahizpekin batera: jostera joaten ziren bi, eta plantxatzera beste biak. Ezkongabea da. [Angela](#) ahizparekin egin genion elkarrizketa Antoninari (irudian, ezkerrekoa).

Zintak

DON-050

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2009-10-30
- **Iraupena:** 89 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Gallastegi, Maddi
- **Transkribatzailea(k):** Gallastegi, Maddi

Pasarteak

1. Ama baserritarra, aita irakaslea

- **Erref:** DON-050/002
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:02:07. **Bukatu:** 00:03:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Lanbideak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Lehen ganbara, bi gela eta sarrera handia zituzten etxean, bizitza bakarreko etxea izan da beti. Oilo batzuek bazituzten, baina besterik ez. Ama baserrikoa zen, aita berriz irakaslea, Hernanin eta Donostian aritu zen irakasle lanetan.

2. Balentziaga jostuna Igeldon

- **Erref:** DON-050/003
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:03:43. **Bukatu:** 00:06:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

<p>Garai hartan Igeldon eliza, sagardotegia, Centro Republicano, plaza, eta zelaia eta baratzeak ziren nagusi. Balentziaga jostuna bere lanak amaitzean Igeldora joaten omen zen lasaitasun bila, bertako behartsuei arropa nahikoa jositakoa omen da. Oso gizon dotorea zen Angelaren esanetan. Igeldok fama handia zuen, erregina bera ere hara joaten omen zen, orduan egin omen zuten Igeldorainoko errepidea.</p>

3. Eskolan izan ezik, gainerakoan euskaraz

- **Erref:** DON-050/004
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 00:06:15. **Bukatu:** 00:09:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Bost senide ziren, lau neska eta mutil bat. Neskak Igeldoko eskolara joaten ziren, dotrinan, elizan eta etxean euskaraz aritu behar izaten bazuten ere, eskolan debekatua zuten euskaraz hitz egitea. Euskaraz zerbait esanez gero, zigortu egiten zituzten, kasu batzuetan baita jo ere.

4. Kantuak eta otoitzak

- **Erref:** DON-050/006
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:10:22. **Bukatu:** 00:13:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

Don Fabian Loidi Igeldoko parrokoak euskal kanta ugari irakatsi zizkien Angela eta Antoninari. Elizako kantuak ere bai, euskaraz eta latinez, baita otoitzak ere. Prozesioan mutilek izaten zuten santua eramateko ardura, neskak atzetik joaten ziren, kantuan.

5. Sokasaltoan eta tabaka

- **Erref:** DON-050/007

- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:13:11. **Bukatu:** 00:15:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

<p>Sokasaltoan, itsuketan, txingoan, tabekin... jolasten zuten. Angela eta Antoninaren ahizpa bati asko gustatzen zitzaion pelotan aritzea, eta amak palak erre zizkion, pelotarekin jolastu ez eta baserrira lanera joan zedin. Angela herri txikietara joan ohi zen dantzara, autobusez eta oinez ahal bezala, hamarretarako etxean egon behar izaten zuten-eta.</p>

Transkripzioa

-Eta zuen umetako jolasak zeintzuk zian?
 -Angela: Ba txinguan gehiyena. Ta sokasaltuan, ta itsuketan.
 -Antonina: Ta karti... zeakin, atabak, atabakin.
 -Tabak?
 -Angela: Klaro!
 -Antonina: Ta pelotan!
 -Ta neskak iten zuten pelotan?
 -Antonina: Bai!
 -Angela: Gue ahizpak, Donostin bizi danak, harek eozin mutillak baiño gehiyo, anaiyak baiño gehiyo.
 -Antonina: Bai, gue anaiyak baiño gehiyo harrek, jesus! Beste laun bat bazun guarden alaba, ene biyak, Jexuxi!
 -Angela: Eozein mutillek baiño gehiyo haik biyak, pelotan. Ta amak palak erre, gue amak, lanea juteatik basarria, bee aman ta etxea, osea aitonen etxea juteatik lanea, bestela ez zun etxea ekarriazten ta palak erre, ez jolasteko pelotan!
 -A bai? Jo! Disgustua earra!
 -Angela: Zuek bezela uste dezue ba? Ta hamarretako etxea, nik hartu dituten zimetako tiraizuak. Ta oiñez jun ta oiñez etorri e, ez pentsa autobusik-eta ez zeon.
 -Antonina: Ez zeon ezerre.
 -Ta nora juten ziñaten?
 -Angela: Nora? Ni herri txiki guzita, baiño gertu, klaro.
 -Oiñez juteko bai, gertu.
 -Antonina: Gu ez, gu iñoa ez.
 -Angela: Añorga, Lasartea ez do juteik urruti izaten zan hua, Aiyetea.
 -Antonina: Hiribidea.
 -Angela: Honek ez du ikusiko, Hiribide Lasarteko birian, han aurrena goiz hasten zan ta han dantza in ta geo Lasartea oiñez han autobusa hartzeko, ta Antiguaiño autobusian eta geo korri hamarretako etorri bihar, zapata takoizkikin juten giñan baiño, geo alpargatak eaman e, bireako e, korri iteko.
 -Bestela ezin zan buelta hain azkar in.
 -Angela: Ta hamarrak jotzen zuen ta, hamarrak jo ezkeo kastigua zan, hurrengoko igandian.

6. "Neskak eta okerrenak!"

- **Erref:** DON-050/008

- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 00:15:05. **Bukatu:** 00:18:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Angelari betidanik gustatu izan zaio dantzari aritzea, igandero joaten zen ia, Villabonara, Hernanira... Antonina urtean behin joaten zen dantzara, behin Usurbila joan eta itzuleran galdu egin ziren, etxera sartu orduko amak horrela esan omen zien: "neskak eta okerrenak!".

7. Igeldoko festak

- **Erref:** DON-050/009
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:18:23. **Bukatu:** 00:20:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Laburpena:

Igeldoko festetan pilota partiduak, lehiaketak, banda... denetik izaten zen. Erromeria ere izaten zen, baina apaiza begira egoten zen balkoi batetik eta berak agintzen zion soinujoleari zer jo eta zer ez. Dena zen pekatua garai hartan.

8. Josten eta plantxatzen

- **Erref:** DON-050/010
- **Iraupena:** 0:04:40. **Hasi:** 00:20:24. **Bukatu:** 00:25:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua

Laburpena:

Igandero goizeko zazpi terdietan joaten ziren mezatarak. Angela josten ikastera joaten zen Donostiara, beste ahizpa batzuk berriz arropa plantxatzen ikastera. Lanetik irtetean, Antiguak elkartzen ziren neskak eta mutilak, iluntzeko zazpiak aldera, Igeldora igotzeko elkarrekin.

9. Haitzetan lagunekin

- **Erref:** DON-050/011
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:25:04. **Bukatu:** 00:27:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak

Laburpena:

Hondartzara joateko ohiturarik ez zuten, Angela haitzetara joaten zen lagunekin, etxeko lanak egin ostean. Bainujantzirik ere ez zuten, gonarekin bainatzen ziren. Itsaso txarra zegoenean ez ziren sartzen uretan, badaezpada.

10. Etxeko lanak emakumeentzat

- **Erref:** DON-050/012
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:27:29. **Bukatu:** 00:30:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Argizari puska handi bat berotu eta eskuila batekin zabaltzen zuten lurrian, igurtzika lurra garbitzeko. Arropak ere eskuz garbitzen zituzten, etxean urik ez zenez iturrira ur bila joan behar izaten zuten horretarako. Etxeko lanak emakumeen gain gelditzen ziren, eta gainera etxeko gizona obeditu egin behar.

11. Amaren baserrira lanera

- **Erref:** DON-050/014
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:30:44. **Bukatu:** 00:31:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserría » Baserriko lanak

Laburpena:

Amaren baserrira joaten zen Antonina laguntzera, artoa eta babarruna biltzen. Aitzurrean ere aritzen zen soroan.

12. Labaderoan kola, arropa garbitzeko

- **Erref:** DON-050/015
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:31:31. **Bukatu:** 00:33:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Donostiara jaisten ziren esnea saltzera Igeldotik, autobusez edota astoarekin. Esnea saltzera bakarrik ez, baita arropa zikinak jasotzera ere, Igeldora eraman eta bertan garbitzeko. Labaderoan kolak egoten ziren, askotan ez zen denentzat lekuri izaten.

13. Oso gaztetatik lanean

- **Erref:** DON-050/017
- **Iraupena:** 0:03:44. **Hasi:** 00:36:55. **Bukatu:** 00:40:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak

Laburpena:

Umetatik hasten ziren lanean, neskame edo morroi joaten ziren Donostiara, edo inguruko herriren batera. Gerora, fabrikak zabaldu zituztenean jende asko bertan hasi zen lanean. Angela 16 urterekin hasi zen lanean, Antonina 20 urterekin, aurretik baserriko lanetan aritu baitzen. Josten ikastera joaten ziren inguruko jostunengana.

14. Gabonetako eskea

- **Erref:** DON-050/018
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:40:39. **Bukatu:** 00:42:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:

<p>Gabonetan etxez etxe aritzen ziren kantuan eta diru eskean. Bildutako diruarekin Zarautza joaten ziren jostailuak erostera, haur behartsuei emateko.</p>

Transkripzioa

-Eta baiñatu hemen bueno, esan dezu arroketan, arrokan, ez?
-Angela: Bai.
-Antonina: Donostia behiñ'e ez.
-Angela: Donostia behiñ'e ez. Donostia amak utzi? Bai, "Iana zion" esaten zun amak. "Hau ta hau ta hau ta iñ, ta ordun", ta ez zan denboik.
-Eta hemen Igeldoko festez aparte, gabonetan eta iten zenuten zer bait?
-Angela: Abestik kantatu umiak giñanian, Ta geo baserriz basarri abestu, eta geo han biltzen zan diruba, erregietako, ba diru gutxiyena zakanai ematen zion apaizak. Jostailluk jutun giñan Zarautza, jostailluk erostea, eta geo jostailluk ematen zixken.
-Antonina: Ta sobratzen zana, bueno.
-Angela: Hango diruakin erosten zuen.
-Ta Zarautzen zer zeon ba?
-Angela: Fabrika bat zeon.
-A fabrika bat?
-Angela: Ni ez naiz goatzen oan baiño, fabrika zeon, fabrika batea jutun giñan gu, eta han eosi eta geo...
-Eta ez zien zuentzat orduan, erositakuak?
-Angela: Ez, ez. Pobriauak bazen ta, haintzat.

-Zuek panpiñik-eta euki zenduen?

-Angela: Bai, bai bai. Ta geo bagendun hemen obserbatoiyan, zeon, nausiya ta etxekoandria, jostaillu denda zaken Donostin, ta nei haik ekarri izandu dixkite panpiñak oso politak gaiñea e, zeatik ni gaixo eondu nitzan.

-Antonina: Gu, batian urte batian eaman ziguen denda, eta...

-Angela: Ta andri horrek oso, gutzako izugarriya zan.

-Antonina: Eta, han aukeratu nahi dezuena /naezuena/, ze aukeratu jakiñ ez, "nik kartak!". Hartu nitun, esan nun, tuntuna e, halako muiñekak, halako kotxiak, ez atrebitzen!

-Momentuan e...

-Antonina: Ez atrebitzen, gaiñea ez atrebitzen, gehiyegi...

-Angela: Ze esangou!

-Antonina: Señora palmirak, bueno...

-Eta kartetan jokatzan zenuten?

-Antonina: Keba!

-Angela: Izebak-eta jokatzan zuen, musian, gizonak baiño gehiyo, baiño dirua ez e, atsalde guztin jolasten aitu ta bost xentimo! Aitzen zianen lau laun.

-Antonina: Lau laun.

15. Sagardotegietara, gizonak bakarrik

- **Erref:** DON-050/019
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:42:56. **Bukatu:** 00:44:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Aisia » Taberna giroa
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

Tabernetan eta sagardotegian gizonezkoak bakarrik ibiltzen ziren, emakumeek etxera joan behar izaten zuten lanera. Donostiatik ere joaten ziren batzuek Igeldora, sagardotegira, autorik zuenak autoz.

16. Apaizarekin alde batetik bestera

- **Erref:** DON-050/020
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:44:51. **Bukatu:** 00:46:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Zapatagintza
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

Laburpena:

Apaizari esker hamaika inguru ikusi zituzten: Hondarribia, Hendaia, Orio... oinez edo trenez ibiltzen ziren, alde batetik bestera. Abarketak apurtu arte ibiltzen ziren korrika eta dantzaz, gora eta behera.

17. "Alpargatas Uzcudun"

- **Erref:** DON-050/021
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:46:43. **Bukatu:** 00:49:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Zapatagintza
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu

Laburpena:

Zapatak bazituzten arren, uda nahiz negu abarketekin ibili ohi ziren, "alpargatas Uzcudun", aitik ekartzen zizkien Donostiatik. Aginagatik Igeldora zihoazenean, galtzen gainetik maoizko 'bonbatxoak' jantzi ohi zituzten.

18. Afaria neska-laguntzearen truke

- **Erref:** DON-050/022
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:49:07. **Bukatu:** 00:50:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Mutilek ilundu arte itxoiten zuten neskei dantza egiteko eskatzeko. Neska-laguntzeak ere izaten ziren, zenbait baserritan mutilak afaltzera gonbidatzen zituzten, etxeko alabari etxeraino laguntzearen.

19. Umeak Parisetik Igeldoraino

- **Erref:** DON-050/024
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:51:26. **Bukatu:** 00:52:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

Umeak Parisetik zetoze la kontatzen zieten eurei, eta sinetsi egiten zuten gainera.

20. Donostiako jostunak

- **Erref:** DON-050/027
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:55:13. **Bukatu:** 00:57:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihaigintza

Laburpena:

Udaran perkalak edo batistak erabiltzen ziren josteko, neguan bielak... denetik. Donostian oihal denda asko zeuden orduan, asko josten zen, baina aberatsentzat batez ere.

21. Elizako betebeharrak

- **Erref:** DON-050/029
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:57:54. **Bukatu:** 01:01:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu

Laburpena:

Igeldon bataiatu ziren, jauna hartu eta konfirmatu ere Igeldon egin zuten. Denek nahi izaten zuten txuriz jantzi jauna hartzeko edo konfirmazioa egiteko. Angelak kontatzen du nola orraztu zioten ilea berari, dotore-dotore.

22. Arrosarioa gauero

- **Erref:** DON-050/030
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 01:01:07. **Bukatu:** 01:02:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

<p>Gauero bost misterioko arrosarioa errezatzen zuten, amonarekin batera. Baserri batzuetan hamalau misteriokoa errezatzen zuten. Norbait hiltzen zenean ere, bere baserrira hurbiltzen zen jendea, eta bertan arrosarioa errezatzen zuten denen artean, hildakoaren omenez.</p>

Transkripzioa

-Eta bazeon jaunartzia iteko problemak eukitzen zitunik dotriña ez jakiteagatik-eta?

-Angela: Bai baiño ordun dotriña danak jakiten zuen, jakin beharko! Jaio orduako errezatzen e! Ez zea, etxetik ateatzeako, zuek parra ingozu e, baiño nik ne semiairi: "Gurutzia iñ al dezue? Oraziyuak errezatu al dituzue?". Ombre, obligaziyua zan hoi.

-Antonina: Gu amonakin.

-Angela: Amonakin.

-Eta amona orduan zuekin bizi zan?

-Angela: Bai aita, izeba soltera bat eta amona ta, ama ta aitta ta, geo bost.

-Eta amona orduan oso, errosariyua ta?

-Antonina: Amona?

-Angela: Ombre baiño ordun denak e, ordun etxe guztitan e, ta hemen bost misteriyokua baiño basarri askotan hamalaukua e.

-Antonina: Hamabostekua, hamabostekua...

-Angela: O hamabostekua o... Nik behin errezatu det hua, Bordan.

-Antonina: Bordan. Hiltzen zanian e etxietan, zea eoten zan...

-Errosaiyua?

-Angela: Errosaiyua bai.
 -Antonina: Eta errosaiyua bai, han baserritan.
 -Angela: Basarria juten giñen errosaiyua errezatzea, korrika lanetik etorri, eta...
 -Antonina: Launen etxia zan-ta.
 -Angela: Launen etxia zan ta errosaiyua errezatzea korrika, ta jendia hola e barra-barra e.
 -Antonina: Ta geo ematen zuen jateko eo eateko eo zoze ematen zuen batzuk.
 -Angela: Bai batzuk baiño bestiak, Bordan ez gendun ezer'e.
 -Antonina: Hoixe.
 -Angela: Baiño, hala zan ohiturak.
 -Eta zenbat denboran? Han hiltzen zanian kajan bertan eoten zan, ezta?
 -Angela: Etxian, bai bai dana etxian.
 -Eta errosariyua, ta?
 -Angela: Errosaiyua gabian, osea bai ta hurrungo eunian ya, hurrungo eunian ya hiletak-eta, baiño hua hartan bai.

23. Norbait hiltzean, lutoa

- **Erref:** DON-050/031
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 01:02:57. **Bukatu:** 01:04:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

Angelak 12 urterekin jarri zuen amonaren lutoa. Antoninak kontatzen du manto beltza jarri behar izaten zutela, gerrian lotuta, eta Antiguako mutilek barre egiten zieten.

24. Igeldoko oilasko biltzea

- **Erref:** DON-050/032
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 01:04:50. **Bukatu:** 01:08:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Oilasko biltzea egiten zen Igeldon. Baserriz baserri joan ohi ziren oilaskoak biltzen, eta ondoren plazan lepoa moztzen zieten, begiak estalita zeramatzaten mutilek. Ohitura hori oraindik ez da galdu, eta neskek ere hartzen dute parte.

25. San Juan bezperan baserriz baserri kantuan

- **Erref:** DON-050/034
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 01:08:35. **Bukatu:** 01:10:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » San Juan
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

Igeldon dema ugari izaten ziren, ahari demak eta oilar demak, esaterako. Bertsolari onak zituzten inguruan, San Juan bezperan baserriz baserri joaten ziren bertsolarien bertsoak entzutera eta abestera. San Juan eguneko kopla bat abesten dute Angelak eta Antoninak, elkarrekin.

26. San Juan sua

- **Erref:** DON-050/036
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 01:11:14. **Bukatu:** 01:12:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » San Juan

Laburpena:

<p>San Juan sua edozein baserritan egiten zuten, edozer botatzen zuten sutara.</p>

Transkripzioa

-Eta mutillak ibiltzen zian ta neskak ere bai?
-Angela: Ez, ordun mutillak bakarrik. Neskak entzutera juten giñan. Entzutera danak. Ta zaharrak'e bai e, ta uaindik'e jendia juten da entzutea e.
-Antonina: Jendia etortzen da ikuste... zeatzea.
-Angela: Hoi ohituraz lehengua segitzen du oaindikan.
-Eta San Juan sua?
-Antonina: Baita're, toki askotan.
-Angela: San Juan sua're iten da beti-beti. Hemen'e toki askotan, hemen plazan'e iten due, Ekaitzen'e bai ta geo basarriyetan'e bai, eozein basarritan iten due.
-Eta lehen ere bai?
-Antonina: Beti.
-Angela: Lehenore bai. Beti-beti.
-Eta ze botatzen zenuten sutara edo, bazeon e?
-Angela: Traste zaharrak eo, al dezuna, o egurra edo...
-Antonina: Oain kajak e
-Angela: Oain kajak ekartzen dittue, lehenore egurra.
-Antonina: Bai.
-Eta su gaiñian salto, ta?
-Antonina: Baita're, ibiltzen dia baiño, aurten ez zian ibilli zeatik...
-Angela: Izugarriya in zuen, ez zeon salto iteik!
-Antonina: Bestela saltaka, hoixe!

27. Kapritxoak mutilentzat, neskak etxearen kargu

- **Erref:** DON-050/038
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 01:12:46. **Bukatu:** 01:15:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia

Laburpena:

Irratia Angela gaztea zela ekarri zuten etxera. Anaiak bazuen bizikleta bat, baina beraiek ez, berrikuntza eta onura guztiak mutilentzat izaten ziren etxean. Nesken betebeharra etxea eta etxeakoak zaintzea izaten zen.

28. Arraina soberan

- **Erref:** DON-050/039
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 01:15:18. **Bukatu:** 01:18:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

Etxean ikusi izan dute jendea lapiko beretik jaten, baina beraiek ez dute hori bizi izan. Arrainik ez zitzaien falta, anaia arrantzalea zelako eta beti ekartzen zuelako arraina portutik. Lehen soberan zegoen arraina, bokartak sorora botatzen zituzten ongarri gisa.

29. Aita Donostian izkutaturik

- **Erref:** DON-050/042
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 01:19:38. **Bukatu:** 01:21:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Tropak Donostian sartu zirenean, etxea soldaduz bete zitzaien. Antoninak gogoan du dena. Militarrak, "gorriak"... zebiltzan alde guztietan. Aita militar baten etxean izkutaturik omen zegoen, etxea miatu zutenean.</p>

Transkripzioa

-Eta oin hori esan dezula, hemen gerra etorri zanian bueno, zu jaio ziñan urtian, zure familiyan eta ze, ze, egon zan gorabeherarik?

-Angela: Ombre! Aitta, atta iya hil zuen.

-Antonina: Bai. Sartu zialako.

-Angela: Tropak sartu zianian...

-Antonina: Tropak sartu, eta gu umiak giñan, dana etxe guztiya dana soldauz betia, dana goitik hasi ta behera.

-Angela: Eta aitak alde in zulako e, gorde.

-Zuk gogoratzen dezu zerbait, garai hartakua?

-Antonina: Ombre! Hoixe.

-Angela: Hoi, soldauk, hoik esaten due beti soldauk, dana eskailletan ta, eskailletan...

-Antonina: Eskailletan ta danian, eskailletan. Ta hemen etortzen zan esto

militar baten andria gue etxea lota, biyhotzetik zeon, eta zea parrokuena zea zan, illoba, baiño oseake "gorrik", republikanuak'e, pistolakin ta eliza ta, mezetan gendela, e? Goatzen al zea, mezetan gendela atzetik sartu been pistolakin ta, zea geldituazi, meza ta, danak ikeatuta, ombre! Hoi're ikusi gendun.

-Angela: Eta geo aitak uste zuen bi lagun ziala, maixua ta organista. Eta nik hoi goatzen naiz aitak nola esaten zun esan ziyela: "Mire, usted diga la verdad eh, ¿usted es separatista?". "Yo no". Eta: "Porque ya le hemos detenido al maestro". Ta klaro, zan beai ai ziala esaten, bea zan, uste zuen bi laun ziala. Berak bazakin beretzat zala. Ta ordun libre utzi ziyen momentun, ba apaiza eta gure aita eaman zitun militar horrek, apaizen illobak, Donostira. Ta han gorde zitun bere etxian, militarren etxian, klaro hua ez zuen miatuko.

30. "Separatistak" eta "gorriak"

- **Erref:** DON-050/044
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 01:21:54. **Bukatu:** 01:24:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika

Laburpena:

Aita izkutaturik zegoen miliitar baten etxean Donostian, etxea miatu zietenean. Garai hartan jende asko espetxeratu eta erail zuten, "separatistak" edo "gorriak" izanagatik soilik.

31. Errazionamendua gerraostean

- **Erref:** DON-050/045
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 01:24:19. **Bukatu:** 01:26:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Angelak gustura jaten zuen boniattoa, Antoninak ez. Gerraosteko garaiak gogoan dituzte biek, errazionamenduko kontuak, eta abar. Nahi zutena jaterik ez zuten arren, goserik ez omen zuten pasa.

32. Erosketak egitera, Donostiara

- **Erref:** DON-050/047
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 01:26:26. **Bukatu:** 01:28:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera

Laburpena:

Igeldon ez zegoen dendarik, Donostian erosten zuten erosi beharreko dena; kafea ontzaka, azukrea libraka... Txokolatea ere jaten zuten meriendatzeko, ogi pixka batekin.

Alberdi Arrillaga, Antonina | ahotsak.eus Orr.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-12

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com